

ZIGOR ZUZENBIDEA ETAREN AMAIERAN

(3. aldia)





SARRERA

Mintegian parte hartu dugunok -epailetza, abokatutza, irakaskuntza eta instituzioen esparruei lotutako pertsonak- Zuzenbidea izan dugu abiapuntu, lotzen gaituen elementua denez gero. Geure arteko desadostasunen gaintetik, aurreko urteetako jardunaldiek printzipioen *corpus* komun bat edukitzea ahalbidetu digute, eta horretan oinarriturik, beharrezkoa dakusagu terrorismoarekin lotutako kasuetan zigor arloko erantzunetan nagusi izan den salbuespenezkotasuna gainditzea.

ETAK bere jarduera kriminalari behin betiko uzten ziola jakinarazi ondoren eta hura behin betiko desagertuko delako ikusmugaren aurrean, are eta indar handiagoa hartzen du mintegiko parte-hartzaileek funtsezkoa deritzoten ideia batek: zigor arloko esku-hartzearen ondorioek bat etorri behar dutela askatasunezko bizikidetzaren balioekin, horrexen defentsan aurkitzen baitu aipatu esku-hartzeak bere izateko arrazoia. Askatasunen izenean diharduelarik, Zuzenbidearen nagusitasuna, hain zuzen ere, askatasun horiekiko errespetuan gauzatu behar da; izan ere, zigor-sistema juridikoa ez da berak aldarrikatzen dituen eskubideen bitartez definitzen, sakrifikatzen dituenen bitartez baizik. Ildo



horretan mintzatzen garelarik, zigor-sistema bere osotasunean hartuta egiten dugu, zergatik ze, ez da bakarrik lege-arazo bat: Estatuaren instantzia guztiek, bai halaber auzitegiek, garatutako praktikei ere badagokie.

Partekatu dugun gogoetak salbuespen hori agertzen den hiru esparru handitan eragiten du:

1. Zigor arloko babesaren hesiak aurrera-tzea, harik eta tipikoa denarekin muga lausodun esparru bat egituratu arte, halako eraz ezen, bertan askatasun ideologikoak eta adierazpen-askatasunak babestuta egon beharko luketen jokabideak sartzen baitira.
2. Bermeak erlatibizatzea edo murriztea:
 - Kautela-neurriak ikerketa-fasean.
 - Atxilotuaren eskubideak bermeak.
 - Froga batzuei aitortutako balioa errugabetasun-presuntzioaren printzipioa ahultzeko: gizarte esparru zehatz bateko pertsonen krimena egozteko polizia-inteligienciaren frogetan oinarrituta, atxiloteta inkomunikatuaren araubidearen mendean dauden pertsonen egindako aitortze-adierazpenak...
3. Zigorrak gogorragotzea:
 - Neurrigabeko Zigor handiak, zigortutako jokabide batzuek dakarten balio-galerarako.
 - Zigor-betearazpena eta "benetako betetzea" ohikoak baino luzeagoak eta baldintza latzagoetan: espetxe-sailkapenak, espetxe-onurak eta baldintzapeko askatasuna.

Gogoeta hori abiapuntu, elkargune gisa honako puntu hauek identifikatu ditugu:

I. PROZESUAREN BERMEAK

• Atxiloketa inkomunikatuaren araubidea

Atxiloketa inkomunikatuaren araubidea kentzearen alde gaude, bereziki kontuan edukita, ildo horretan Estatu Espainolari formulatu zaizkion eskari esplizituak, Giza Eskubideen bermerako nazioarteko erakundeek egindakoak, alegia; bai halaber, kontuan hartuta, atxilotuen eskubideen arloan sinatu diren nazioarteko hitzarmenak.

Salbuespenezkotasuna gainditu beharrak baita eragiten dio ere, komunikazioen isilpekotasunaren eta egoitza bortxaezintasunaren arloetako bermeen narriadurari.

II. FUNTSEZKO ZUZENBIDEA

• 577. artikulua: Terrorismo-delitua, talde armatuko kide izan barik

Orobat, talde armatukoa izan barik edo harekiko kolaborazio barik terrorismo-delitua egoztea kentzearen alde agertzen gara, eta jokabide horiek delitu arrunten esparruan kokaraztearen alde.

• 578. artikulua: Terrorismoa gorestea eta apologia delituak

Terrorismoa gorestearen delitua kendu egin behar da, talka egiten baitu, gure ustez, bizikidetzaren demokratikoaren arkitekturaren parte den eskubide bat, adierazpen-askatasuna, legitimoki baliatzearekin.

Biktimen duintasunaren babesari dagokionez, hori Zigor Kodetik kentzearen alde agertzen gara, eta haien ohoreari eta duintasunari zigor arloaz kanpoko babesa ematearen eta beraien babes erabatekoa araudi administratibo eta zibilaren esparruan kokaraztearen alde.

III. ZIGOR BETEARAZPENEA

• Espetxe-zuzenbidea

Zigorak betetzearen fasea arteztu behar duen printzipio gidaria gizarteratzearen printzipioak izan behar du. Printzipio horretan oinarrituta, jardun-tarte zabala dago, hala espetxe-administrazioaren esparruan, nola auzitegien erabaki esparruan, une honetan ETako presoek euren kondenak irizpide orokorren eta unibertsalen arabera bete ditzaten eragozten dituzten oztupoak kentzeko.

Mintegiko parte-hartzaileek azpimarratu egin dute ETak bere indarkeriazko jarduera utzi izanari garrantzia eman behar zaiola zigorraren banan-banakako zehazte erabakietan legeria- eta epaiketa-faseetan. Azpimarratu egiten da, era berean, inguruabar horrek bere isla izan behar duela ETako presoek arriskugarritasunarekiko pronostikoan, bai halaber, pronostiko horrek eragin zuzena izan behar duela zigorraren betearazte-fasean, hain zuzen, ahalbideratzeko haien birgizarteratzea hobeto erraztu dezaketen bizi-baldintzak eskuratzea; beti ere birgizarteratzea ulertuta delitu berririk egin gabe bizitzeko gaitasun gisa. Printzipio horiei jarraiki, bildu direnek honako hau proposatzen dute:

- ETako presoek kondena euren jatorri-lekuetatik hurbil dauden espetxeetan bete dezatela, bake- eta normalizazio-prozesua erraztuz kartzeletan zein katzeletatik kanpo.
- Espetxeetako administrazioak erraztu dezala, espetxetik irtetea ezartzen duten arauak aplikatu dakizkien gaixotasun larriak eta sendaezinak dituzten presoek, beharrezko diren kautela-neurriekin.
- ETako presoek espetxe-sailkapena zehazteko irizpide gidaria izan dadila preso bakoitzak deliturik egin gabe bizitza askea egiteko duen gaitasun pronostikoa, hala ere eraz ezen, kasuan kasu, erraz dakion presoari gizarteratzeko, laneratzeko eta familian bizitzeko bere ibilbidea egokien erraztuko dion bizi-araubidea.
- Biktimen zeregina zigor-beterazpenaren fasean

Mintegian parte hartu duten pertsonen biktimek duten egiarako, justiziarako eta kalte-konpontzerako eskubidea aldarrikatzen dute, eta zigor-prozesuak aspalditik betetzera eraman izan dituen zeregina gainditu behar dela. Ildo horretan, balioa eman diete, jendaurrean indarkeria arbuiatu zuten preso batzuek euren biktimekin izan zituzten elkarraldiei, justizia berrezarlez denaz bezainbatean horiek duten garrantziagatik.

Biktimen eskubideek, alabaina, ez dute justifikatzen zigorrak betetzearen fasean biktimei legez aitortzen zaien salbuespenezko legitimazio aktibo zabala, ezen fase horretan printzipio eragilea delituaren larritasuna baino delitu-egilearen gizarteratzeak izan behar baitu.

